



## **ARAUDIA 2013**

### 7 ko FUTBOLA (Partidetza ibilbidea)

Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak, Euskadiko Futbol Federazioarekin lankidetzan, **EUSKADIKO XXXII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK** antolatuko ditu. Durangon, Landakoko futbol zelaian, 2013ko maiatzaren 25 eta 26 eta ekainaren 1ean.

#### **1. JOKO SISTEMA**

Kategoria: neska infantilak, 1999 eta 2000 urteetan jaiok.

#### **2. TALDEEN OSAERA**

Gehienez 15 jokalaria izango dituzte taldeek, aktan jasotakoak, eta horietaz gain ordezkari bat eta entrenatzailea ere izango dituzte. Bost jokalaria egon behar dira, gutxienez, partidari hasiera eman ahal izateko; halere geroago etortzen diren gainontzeko jokalariek jokatzeko aukera izango dute. Talderen bat 5 jokalaria baino gutxiagorekin geratzen denean partida bukatutzat joko da.

Taldeek jantzien kolorearen berri emango diote antolaketari izena ematerakoan, bi talde ez daitezen bat etorri partida egunean.

#### **3. JOKOAREN IRAUPENA ETA ALDAKETAK.**

35 minutuko bi zatitan banaturik dago partida eta 10 minutuko atsedendia du.  
Zati bakoitzak 17minutu eta 30 segundoko bi tarte izango ditu. Beraien artean

atsedenik gabe, aldaketak egiteko baliagarriak izango dira. . Jokalari bakoitzak denbora bat jokatu beharko du gutxienez. Salbuespenak hauek izan daitezke:

- Lesionatutako jokalaria.( Jokalari batek atentzioa jaso arren, aldaketa egiteko beharrik ez dago, jokoan bi minutuko edo gehiagoko etena ematen ez bada).
- Kanporatutako jokalaria.

Jokalariak zelaiaren erdigunetik sartuko edo irtengo dira. Atezainak beste edozein jokalariri utzi diezaioke bere postua, epailea aurretik jakinaren gain jarritz gero; atezainaren elastikoa jantziko du jokalari horrek. Jokalari batek txartel gorria jaso gero, ezingo du jokatu partida amaitzeko geratzen den denboran; kanporatzea partidako azken hamar minutuetan gertatu ezean, horren ordez beste jokalaria bat sartuko da zelaigunera.

#### **4. TXARTEL HORIA ETA TXARTEL GORRIA.**

Jokalariaren jokabide ez zuzena edo ez duina falta arintzat jotzen badu epaileak, txartel horia erakutsiko dio eta zelaitik botako du denbora baterako (bi minuturako). Behin bi minutuak igaro ondoren, jokalari hori zelaira itzuli daiteke epaileak baimena ematen dionean.

Epaileak txartel gorria erakutsiko dio eta zelaitik botako du jokalaria honako kasu hauetan: bere ustez, jokalaria jokaera bortitza duenean; joko zakar larriaren errudun denean; hizkera zikina edo iraingarria erabiltzen duenean; edo ohartarazpen bat jaso duen edo aldi baterako kanporatua izan den jokalaria jokaera ezegokia izaten jarraitzen duenean.

## **5. JOKOZ KANPO.**

Jokalari bat jokoz kanpoko posizioan egongo da, aurkako taldearen 13 metroko gune barruan egonda ateko marratik baloia baino gertuago badago, jokalaria eta aipaturiko marraren artean aurkako taldeko bi jokalari edo gehiago egon ezean.

## **6. FALTAK NOLA GAUZATU. ZIGOR JAURTIKETA.**

13 metroko marratik kanpo adierazitako faltak jaurtiketa libre batekin zigortuko dira. Falta horiek zuzenean jaurtiko dira egindako leku beretik, zuzenean puntu bat lortzeko aukera emanez taldeari. Aurkako jokalariek bertatik 6 metroko distantzia minimora egon beharko dute.

Jokalariak bere taldearen 13 metroko gune barruan falta eginez gero, epaileak penaltia adieraziko du eta ekintza horren larritasunaren arabera zigortuko du jokalaria, futbol hamaika jokoko arauak aplikatuz.

## **7. ARAUZKO DENBORA IGAROTZEAN.**

Penalti-puntutik bost jaurtiketako txanda bat egingo du talde bakoitzak, penaltia botatzeko bi taldeetako jokalariak txandakatuz. Bost jaurtiketak egin ostean berdinketa badago, penaltiak jaurtitzen jarraituko dute talde batek hutsegín eta besteak sartu arte.

## **8. BALOIA**

4 zenbakikoa izango da baloia, honako ezaugarri hauek dituena. Berotzeko baloiak taldeak ekarri beharko dituzte.

## **9. ZELAIA**

Txapelketaren programan azaltzen den araberakoa.



## **10. JOKO ARAU OSAGARRIAK.**

Aipaturiko arauak aurreikusten ez dituzten egoeretan futbol 11ko arauak aplikatu.

## **11. KIROL SARIAK.**

Lehenengo hiru sailkatuentzako garaikurra.

## **12. EZBEHARREN AURREAN.**

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkeru nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

## **13. AZKEN OHARRA.**

Araudi honen barruan aurreikusirik ez dauden egoeretarako honako hauek izango dira kontutan:

- a) 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b) Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretua.
- d) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren 2013ko urtarrilaren 14ko Agindua, 2013ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXII. edizioaren deialdia egiteko dena
- e) Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendariak, 2013ko otsailaren 11ko Ebazpena, 2013ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXII. edizioaren epaile bakarra izendatzen dena.
- f) Futboleko Euskadiko Federazioaren araudiak dioena.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkeru, gaztelaniazkoa lehentasuna izango du.